



2023KO ORRI EUKARISTIKOA

DESBERDINKERIA
GELDIARAZTEA

zure esku dago

Manos Unidas
CAMPAÑA CONTRA EL HAMBRE

2023ko otsailaren 12an, Manos Unidasen Jardunaldi Nazionalaren egunean, Eukaristia beharrean daudenen alde ospatzea proposatzen dizuegu («Goseak daudenen alde», *Erromatar Meza-liburu berria*, 33. zenbakia, 1047. or.). Irakurgaiak, berriz, urteko VI. igandeari dagozkionak lirateke (A zikloa).

SARRERAKO MONIZIOA

Ongi etorri Eukaristia honetara. Gosearen Aurkako Kanpainaren Eguna dugun honetan, hauxe da bere aurtengo goiburua: «**Desberdinkeria geldiaraztea zure esku dago**». Pobreziatik irteteko eta desberdinkeria arrakala apurtzeko, «lan duina» behar dute gizakiek, hori baita mendekotasun-egoera gainditu ahal izateko bidea.

Jainkoaren Hitzaren edertasunak eta Jaunartzearen altxorak lagun diezagutela Jesusen eskuzabaltasuna ikusten eta izan gaitzela itxaropen-iturri, anai-arreba ditugun milioika gizakiren pobrezia-egoera aldatzen ahaleginduz.

DIRU-BILKETAKO OTOITZA

(*Erromatar Meza-liburu berria*, 1047. or.).



IRAKURGAIETARAKO MONIZIOA

Zoriontsu da Jainkoaren nahia betetz bizi dena. Zoriontsu da, halaber, premiak dituzten gizaki eta herriei laguntzen diena, Jainkoaren seme-alaba baitira haiek ere, eta gure anai-arreba. Ebanjelioak gogorarazten digu ez dugula geurekoikerian itxi behar, baizik eta, maitasunez, zabaldu egin behar dugula barnea, gizaki guztien duintasuna aktiboki zaintzeko.

OTOITZA

Apaizak: Egin dezagun otoiz

Elizaren eta herrien beharren alde.



● Elizaren, Frantzisko aita santuaren eta gure gotzainaren alde, Ebanjelioa haien ekintzen inspirazio-iturri izan dadin eta munduan Jainkoaren Erreinuaren ikur izan daitezen.

Egin dezagun otoitz.

● Nazioetako gobernuen alde, guztien onaren alde jardun dezaten eta baliabideak jar ditzaten gizaki guztiek izateko eguneroko ogia, hezkuntza eta lan duina.

Egin dezagun otoitz.

● Gure karitatearen alde, garabidean dauden herrialdeekiko eraginkorra izan dadin, gizaki guztiek izan ditzaten elikagaiak, garapen-aukerak eta lana, beren familiak aurrera atera ahal izateko. **Egin dezagun otoitz.**

● Hildakoen alde eta gosearen aurkako borrokan Manos Unidasen lagundu ziotenen alde, Jainko Jaunak lekua egin diezaien zeruetako erreinuko oturuntzan.

Egin dezagun otoitz.

Apaizak: Gure Aita, har itzazu bihotzean

daramatzagun eskaera hauek guztiak.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez.



▲ Jainkoaren «irudiko» garelako zaindu behar dugu giza bizitza oro, gizaki egin zen bere Semearen antzerako sortu baikintuen.

▲ Honela idatzi zuen Frantzisko aita santuak: «Behartsuei diruarekin laguntzeak larrialdiak konpontzeko irtenbide behin-behinekoa izan behar du beti. Lanaren bidez bizimodu duina izateko aukera emateak izan behar luke helburu nagusia» (*Fratelli tutti*, 162).

▲ Guk Manos Unidasen lagun diezaiokegu, herrialde behartsuetako gizakiei bizi-baldintzak hobetzearen alde egiten baitu lan.

DIRU-BILKETARAKO MONIZIOA

Gaur bildutako dirua Manos Unidas egiten ari den lanari laguntzeko izango da. Esker mila zuen eskuzabaltasunagatik.

ESKAINTZAK

Hona hemen Manos Unidasen garapen-proiektua. Ogia eta ardoa ere eskaintzen dizkizugu.

ESKAINTZEN INGURUKO OTOITZA

(Erromatar Meza-liburu berria, 1047. or.)



JAUNARTZEAREN OSTEKO OTOITZA

(Erromatar Meza-liburu berria, 1047. or.)



HOMILIARAKO IRADOKIZUNAK

▲ Mandamentuek erakusten digute Jainkoaren arabera zer den bere seme-alabentzat ona eta zer den txarra. Jainkoaren legea aukeratzea askatasunez aurrera egitea da, Jainkoaren aurrean pozik bizitzeko eta lagun hurkoari zoriona emateko.

▲ Jesusek, «mundu honetakoa ez den jakinduriaz», erakusten digu ezin dugula legea betetzera mugatu (ez duzu hilko, ez duzu adulteriorik egingo...), eta bitartean anai-arrebekin elkartasunik gabe jokatu. Ez gaitezen inor «ez hiltzera» mugatu, azkenean inoren alde ezer egin gabe.

▲ Jesusek hauxe irakatsi zigun: on egin zure lagun hurkoari, eta bizitza aldeztu beti. Zain dezagun geure eta gure kideen bizitza; adibidez, gose denari jana emanaz, egarri denari ura emanaz, gaixo dagoenari ikustaldia eginez, lana sortuz, eta abar.



Borondatezko barau-eguna

2023ko otsailaren 10a, ostirala

Manos Unidasen Jardunaldi Nazionala

2023ko otsailaren 12a, igandea



Kristau-prestakuntzarako material gehiago, hemen:
manosunidas.org/sensibilización-parroquias